# elkar

UDAZKENA 2019
57. ZENBAKIA
www.elkar.eus



## BERNARDO ATXAGA

*Etxeak eta hilobiak*, azken nobela izango dena

+

## LUZ GABÁS

*El latido de la tierra*

## HIRIBURUETAKO GIDAK

Arian euskara ikasteko metodoak zazpi irakurketa liburu kaleratu ditu

## IZEN PROPIOAK:

Ruben Sanchez · Ane Zabala · José Ignacio Carnero · Juan Luis Zabala · Irati Jimenez
Antton Olariaga · Ascensión Badiola · Yuval Noah Harari · Xabier Leturia · Irati Fernandez Gabarain

8435226176741


Badatoz jolasak!
Jolas hezitzaileen gida 2019-2020
laster eskuragarri **elkar** liburu-dendetan
JOLAS HEZITZAILEEN GIDA
2019 2020
GUÍA DE JUEGOS DIDÁCTICOS
%-5 Elkarkideent
elkar
www.elkar.eus




IRATI FERNANDEZ GABARAIN




Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan

@elkar
@elkar
postdata.elkar.eus
flickr elkartaldea
elkarTaldea

elkar
www.elkar.eus

elkar liburu-dendak

ALGORTA (GETXO)
Telletxe 11
94 491 66 16

ARRASATE
Erdikokale 14
943 79 78 29

BAIONA
Arsenal plaza
559 59 35 14

BASAURI
Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84

BERGARA
Ibargarai 7
943 76 40 50

BILBO
Licenciado Poza 14
94 443 47 08

Iparragirre 26
94 424 02 28

Zamudioko ataria Zazpikale
94 416 14 50

DONOSTIA
Fermin Calbeton 21
943 42 00 80

Bergara 6
943 42 63 50

GASTEIZ
San Prudencio 7
945 14 45 01

Apraiztarrak 1 Campus
945 14 16 70

HERNANI
Kale Nagusia 30
943 55 15 37

IRUN
Colon pasealekua 8
943 63 17 26

IRUÑEA
Comedias 14
948 22 41 67

Leire 9
948 17 55 38

TOLOSA
Arostegieta z/g
943 67 35 33

El primer caso de la inspectora Manuela Mauri



*La nueva serie policial de Lorenzo Silva, junto a Noemí Trujillo.*




DESTINO



# BERNARDO ATXAGA




**ETXEAK ETA HILOBIAK**
Bernardo Atxaga
PAMIELA

**Errealitatearen labirintoan sartu eta barrutik hitz egitea da idazlearen lana Bernardo Atxagaren ustez: “sentimentuak harrapatu eta egiak azalerazi". *Etxeak eta hilobiak* sekula idatzi duen nobelarik konplexuena dela dio. Irakurleak, berriz, jauzia nozitu gabe egingo du errealismotik surrealismora, bihotza uzkurtu eta irribarre. Atxagaren azken eleberria da hau izatez baina baita desioz ere. Beste leku (literario) batzuk bisitatu nahi ditu aurrerantzean; txikiagoak neurriz baina ez sendotasunez.**

> *“Pamielari esan diot kartelean jartzeko ‘azken nobela’ izango dela hau”*



**Asteasun jaiotako idazleak badaki nola sentitzen den Elias nerabea Pauera frantsesa ikastera joan, aurkezpenean “village” batetik datorrela esan eta ikaskideek, irain modura, “bilash” deitzen diotenetik.**
Bai, xehetasunetan dago Jainkoa. Inbentario bat egingo bagenu zer den nerabe baten bizitza herri txiki batean eta gero Frantziara dihoanean, infinitoa litzateke. Harrigarria egiten zait, nola bizi garen modu sinplean, oin bat bestearen atzetik botata, eta aldiz, burua, sentimentuak, infinitoak dira. Horiek harrapatzea da literaturaren eginkizuna.

**Mutututa itzuli da Elias Frantziatik Ugartera. Halako batean, osaba jabetu da: “fraideen eskola batean egon da. Hor egongo da esplikazioa”.**
Idazleak beti bi ardatzekin jokatzen du: Batetik, oroitzapena. Finean, halako “flash” batzuk dira oroitzapenak; ez sekuentzia osoa. Eta bestetik, irudimena. Irudimenak nahastu egiten du dena, duela 30 urtekoa atzokoarekin. Eta litekeena da istorio horretan esperientzia horiek gurutzatuta egotea. Mutilak halako izu bat sentitu du eta mututu egin da. Ni egona naiz “Beau-Frère” ikastetxean. Ez naiz ezagutzen ez dudan lekua deskribatzen ari.

**Epilogoa alde batera utzita, sei narrazio ditu eleberriak. Autonomoak dira baina unibertso bakarra osatzen dute.**
Batasuna da eleberriaren ezaugarri nagusia. Pieza guztiek, orri guztiek egon behar dute harremanetan, esfera batean bezala. Eta ez dago ezer esfera horretatik kanpo. Sekula idatzi dudan nobelarik konplexuena izango da. Egiterakoan, alegia. Irakurleak, berriz, erraz irakurriko duela uste dut. Pentsatu geranio batean: lorea bera harmonikoa eta soila da. Haren zainek, berriz, mataza bihurria ostazen dute. Ba, geranioa eskaini nahi izan diot irakurleari, ez zain-mataza bihurri bat.

**1972tik ia gaur arte doa nobela eta okindegi bat bezain leku xumean girotutako istorio errealistenetik, istripu baten harira deskribatutako pasarte surrealistaraino.**
Gure ikuskeran, esna gauden bitartean ezagutzen dugun errealitateak hartzen du zentraltasuna. Baina denok egiten dugu amets, denok edan dugu inoiz gehiegi, jendeak ebakuntza izan du eta anestesiarekin era guztietako munduak azaldu zaizkio. Esna gaudenean bezala, erabat esna ez gaudenean ere errealitate asko dago eta nik aspaldi beste alde honekin ere asko jokatu dut.



AZALEKO ETA BARRURIKO ARGAZKIAK: XABIER IDOATE

**Subkonszientearekin.**
Uste dut idazle izateko tresna horrekin idatzi behar dela; ez dena kontrolpean izan. Idazkera honetan, batez ere narrazioan, miresgarria den zerbait gertatzen da: alegia, nola joaten zaren egiarantz. Egia harrapatzea zaila da eta berdin egia esatea. Denok dakigu gainera bizimoduak halako arintasun bat behar duela bizi ahal izateko. Senar-emazteen harremanetaz, heriotzaren aurreko ikaraz, ez dira egiak esaten eta agian ondo dago ez esatea. Idazkera da horiek esateko bidea.

**Eleberrian Mateok Pascal irakasleari bezala, galde diezazuket zuri zein den idazlearen zoriona?**
Hauxe da literaturatik egia nola esan litekeenaren adibide bat. Nire urteekin, autobiografia batean ez nioke neure buruari galdera hori egingo. Baina nerabe baten bidez egin dezakezu galdera hori.
Zoriona? Oraintxe nik daukadana. Lasai nagoelako. Egin duzu egin nahi zenuena, egin nahi izan duzun bezala eta nire kasuan horrek esan nahi du askatasun osoz. Ez da gutxi. Izan ere, gure bizitzan zenbat eta aurrerago joan, pixkanaka zure inguruan mugimendu bat sentitzen duzu. Kaiola bat ari dira zuretzat egiten eta zure burua geroz eta barrurago ikusten duzu. Horretaz konturatuta, uste dut eutsi egin diodala askatasunari. Eutsi egin behar zaio buruari bere lekuan.

**Hori da idazlearen ahuldade nagusia ere, bere burua?**
Bai, hori da idazlearen arriskua baina baita bere espaziontzia ere. Idazleak ikasi behar du buruak alde egingo diola eta iritsiko dela nahi ez duen lekuetara baina itzultzen jakin behar du. Idazlearen lana oso hurbil dago eromenetik, oso hurbil. Ilargira joan zaitezke baina horrek arrisku bat du.

**Ia bi urte *Etxeak eta hilobiak* taxutzen. Orain sukaldea jasotzera?**
Pamielari esan diot ahal bada kartelean jartzeko “azken nobela”. Alde batera egia da, orain arteko azkena baita baina nire desioa, zilegi bada esatea, hau azken nobela izatea da. Beste leku batzuk bisitatu nahi ditut. Hemengo eliza literarioan, euskarazkoan, (broma gaiztoa eginda, hau ez da eliza, ermita baizik), gauza asko kanpoan geratzen dira. Irakurleak erdiko gauzak nahi ditu, eleberriak eta noizean behin poemak. Baina gure erlijio honetan badira beste praktika batzuk eta nik beste idazkera batzuk arakatu nahi ditut. Marx anaien filmeen gidoilariak esaten zuen ez zekiela jendeak zergatik esaten zuen nobelak hain garrantzitsuak zirela; “miniatura batek mural batek adina balio du”, zioen berak. Ze ondo esana!

**Eta zer kabitzen da miniatura literario batean?**
Euskadi Irratiko “Faktoria” saiorako egin nituen “zeruko kronikak” edo testu batzuk, non goizetik gauera gertatutakoa kontatzen dudan. Behin, egun jakin batean gertatutakoaren bostpasei pieza idatzi nituen eta harrituta gelditu nintzen zenbat gauza gertatu litezkeen egun bakarrean eta zeinen harrigarriak batzuk. Surrealismoa eguneroko bizitzan. Egun bateko piezetatik gauza oso sendoak atera litezke. Hortik joko dut, igual. Joan naiz ilargiraino eta ea orain ilargiaren atzean zer dagoen. Ez banaiz itzultzen, (barre), gogoratu nirekin.

**MAITE ARTOLA**
Kazetaria

Elkarrizketa osorik:
http://bit.ly/bernardo_atxaga





**ANE ZABALA**
Kazetaria

*Proposamena*

# INDARKERIAK ETA PENTSAMENDU KRITIKOAK BAT EGIN DUTE

Indarkeria beti egon izan da. Gaur egun, asko hitz egiten dugu indarkeriak erabiltzen dituen mozorroez. Biolentzia bizitzako eremu guztietan agertzen zaigu. Gainera funtsezko papera jokatzen jarraitzen du boterea eta zapalkuntza harremanak osatzeko. *Retratos de la violencia* pentsamendu kritikoaren inguruko komikia dugu, sei ilustratzailek (**Inko**, **Carl Thompson**, **Robert Brown**, **Chris Mackenzie**, **Michiru Morikava** eta **Yen Quach**) eginikoa eta bi autoreek, **Brands Evans** eta **Sean Michael Brown**, laburbildutakoa. Forman eta edukian komiki berezia dela esango nuke, hamar kapitulutan banatuta dago, hamaika eskutara marraztua. Biolentziaren inguruko pentsamendua landu duten hamar pentsalariren inguruko komikiak dira, hortaz. Biolentziak egunotan gure gizartearen arazo larria eta konplexua izaten jarraitzen du, jendartea aurrez aurre jartzen duena. Arazoa askotarikoa da, biolentzia forma eta era askotan gertatzen baita, eta denok eragiten gaitu. Nobela grafikoan edo ilustrazioan oso ezagunak diren sortzaileak eta mundu akademikoan oso ezagunak diren autoreak (**Hannah Arendt**, **Frantz Fanon**, **Brad Evans**, **Edward Said**, **Paulo Freire**, **Michel Foucault**, **Susan Sontag**, **Noam Chomsky**, **Judith Butler**, **Giorgio Agamben**) liburu batean bildu ditu. 12 orritan pentsalari baten lan akademikoa iruditara ekarri eta irakurgarri jarri dute. Hitzaren eta irudiaren bitartez pentsamendu kritikoa uztartzeko eta biolentzia ezberdinen hausnarketak plazaratzeko manuala da. Komiki bakoitzak pentsalari baten lan nagusietako baten iruzkina abiapuntutzat hartzen du. Indarkeria aztertzerako orduan, memoria egitea ezinbestekoa da. Adibidez, komikiaren pasarte batean indarkeria kolonialak gaur egun utzitako ondorioak aztertzen dira. Besteak beste, orriotan agertuko dira ekialde eta mendebaldearen arteko erlazioa eta tentsioak, hedabideen papera, propaganda zabaltzeko tresnak, bizitza prekarioak... Atal bakoitzari estilo ezberdina eman diote, batetik besterako ezberdintasuna estetikoki zainduz. Akademikoaren eta bisualaren arteko elkarrizketa hau gure garaiko pentsalari kritiko nabarmenenetako batzuenganako sarrera bikaina da.




**RETRATOS DE LA VIOLENCIA UNA HISTORIA ILUSTRADA DEL PENSAMIENTO RADICAL**
Batzuk
AKAL

*Profila* HERTZAINAK

# IZAN EZ BALITZ ASMATU BEHARREKOA



**JUAN LUIS ZABALA**
Kazetaria

Wikipediak honako hau dio *Euskal Rock Erradikala* sarreran: "Gaztelania izan zen Euskal Rock Erradikalaren hizkuntza nagusia, eta euskaraz saiatu ziren lehen taldeak *Zarama* eta *Hertzainak* izan ziren. Biek ala biek erabaki antzeko bat hartu zuten: Euskal Herrian punka egiteko, euskaraz abestu behar zen. Horrela, bi taldeetako abeslariek, **Xabier Montoiak** (gerora *M*-ak taldean aritu zena) eta **Roberto Mosok**, hurrenez hurren, euskaraz ikasteari ekin zioten".

Hizkuntzari dagokionez, berezitasun hori izan zuen, beraz, *Hertzainak* taldeak hasieratik, duela 38 urte, 1981ean, sortu zenetik. Lehen diskoa kaleratu zutenerako (*Hertzainak* izenburua zuena, duela 35 urte, 1984an), **Montoiak** taldea utzia zuen eta gaztetxo euskaldun batek, **Garik**, zuen hartua haren lekua.

Beste berezitasun garrantzitsu bat ere izan zuen *Hertzainak* taldeak garai eta giro bereko rock eta punk talde gehienekin alderatuz gero: ikuspegi ideologiko informatuagoa, landuagoa, garatuagoa, zorrotzagoa zeukan, ezker abertzalearekin estu lotua baina, aldi berean, ezker abertzalearen joera eta ezaugarri askorekin kritikoa. Ezker abertzaleak 80ko hamarkadako azken urteetan izan zuen ikuspegi aldaketaren aitzindaritzat har daiteke *Hertzainak*.




Horren guztiaren ondorioz, garai eta giro hartan, *Hertzainak* talde –iraintzat ere har daitekeen hitza barkatzen bazait– "intelektuala" izan zen, behintzat inguruan zeuzkan gainerako gehienekin alderatuz gero. Hala ere, euskaraz eta hitz landuagoekin aritzearen ustezko "desabantaila" izan arren, publikoarekin konektatu eta sekulako arrakasta izan zuen.

Meritu horren parte handi bat, bestalde, musikari zor zaio. Horretan ere garaiko eta giro bereko talde gehienak ez bezalakoa izan zen *Hertzainak*. **Josu Zabalak** –taldearen diseinatzaile nagusiak– *do it yourself* primariotik haragoko musikariak bildu zituen inguruan, eta horrek sendotasun musikal handia eman zion taldeari.

Esaten da ba izan ez balitz asmatu egin beharko zatekeela... Ba hori esan daiteke *Hertzainak* taldeari buruz.

BARREN-BARRENEAN

# GURE ARBASOEN ESKIFAIA



**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA

Ez dut uste euskal literatura inoiz izan denik batzuetan iruditu zaigun bezain zabal, osasuntsu edo handi. Literatura txiki bat daukagu, apenas tradiziorik gabea. Haragiari kariño gutxi izan diogu. Belaunaldien arteko elkarrizketa eskasa. Kooperatibismoa falta zaigu. Eta erotismoa ere bai. Sobrenaturalismoa gutxiesten dugu eta ironiaz hitz egiten dugu, baina benetako umorea falta zaigu eta gorputzeko humoreak ere bai. Ez dugu Urre Gorrizko Arorik izan. Ez daukagu boom gogoangarririk. Ez zaigu sortu 27koaren antzeko belaunaldirik, loriazko poeta gazteen armada garaiezinik. Baina marinelak izan ditugu, literaturaren korronte submarinoetan igerian. Eta txinparta gogoangarri batzuk, han eta hemen, historia irabaz dezakegula frogatzen dutenak.



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Izan dugu geure **Baudelaire** intimo bat, **Jon Mirande** izenekoa. Infernuko edertasunaz eta loriaz idatzi zuen idazle druida bat. Ez da gutxi abadekien eta mojakien hiru miloi biztanledun herri baterako. Euskaltzaindiako atea itxi zioten eta pena izan zen. Goiz galdu genuen eta pena handia izan zen. Baina horrekin triste jartzen naizenean irakurtzen dut *Gauaz parke batean* (Elkar, 1984) eta umore beltza ere izan dezakegula gogoratzen dut. Ezagutzen duzue enpalatuaren ipuina? Minik ematen duen galdetzen diote eta baietz erantzuten du, "batez ere farre egiten dudanean".

Eta **Agosti Xaho**, hori ere badaukagu. **Asisko Urmeneta**ren *AztiHitza* (Erroa, 2018) liburuaren eta ikuskizunaren protagonista, historiaren erraietatik jaiotako tenponauta pirata bat, XIX. mendeko feminista harrigarri bat, amodioaz hitz egin ziguna, eta sexuaz eta generoaz eta euskaldun emakume eta gizon gazteen libertateaz. *Agosti Chahoren kantutegia* (Susa, 2006) irakurtzen duenak idazle inkandeszente bat aurkituko du, herritarra, erromantikoa. Jainko propioak eman zizkigun, mitologia liluragarri bat. Furakanaren furia zeukan bihotzean eta marinelak bidali zituen Ternuarat. Gustatuko litzaioke jakitea *Picassoren zaldia* (Elkar, 2007) liburuan **Asier Serrano**k adarbakar hegalari bat nahi zuela eta aurrera goazela, astiro bada ere.

Bide luzea dugu aurretik. Hemen, euskaldunon aberri honetan, Elizako soldadu misoginoek sorginak hil zituzten eta sorginkeria berreskuratzeko lan handia egin beharko du gure gorputz literarioak. Baina badugu sena. Badugu gaitasuna. XVI. mendean **Etxeparek** emakumeen alde idatzi zuen eta emazteen fabore aritu zen baita **Arnaut Oihenart** ere, modu hunkigarrian. Dena ez da galtzen, sorginak erreta ere iraun dezake sorginkeriak gizonen eta emakumeen literaturan. **Omar Nabarro**k *Haragizko amoreak* (Susa, 2010) eman zizkigun, **Oier Guillan**ek *Elkartasun basatia* (Susa, 2013), **Leire Bilbao**k *Ezkatak* (Susa, 2006) eta **Miren Agur Meabe**k *Azalaren kodea* (Susa, 2000). **Castillo Suarez**en azken poemategian bezala *Irautera* goazela uste dut (Elkar, 2019).

Baditugu horretarako behar ditugun arbasoak gure historian. Eskifaiak gehiago behar du, baina iraganeko haizeak esperantza dakar. Begira bestela harrizko herri honetan, gaur baino gutxiago geneukanean, zer-nolako kapitain pilotua sortu zitzaigun **Gabriel Aresti**rengan. Irakurri bere lanak, **Angel Zelaieta**ren bere biografia (Susa, 2000) edo **Adur Larreak** egindako *Gabriel Aresti BioGrafikoa* (Erroa, 2015) eta ikusiko duzue Herkulesen lanak egin zituela gure alde. Ahalegin hori ez diogu pagatu oraindik baina benetan uste dut ordainduko diogula egunen batean. Ez dugu asko. Baina daukaguna ez da gutxi. Sikate handien artean bizirik mantendu den literatura eder bat eta lukurreriarik onartu ez duen idazle saldo bat. Txikia eta urria baina formidablea da gure arbasoen eskifaia.




# LUZ GABÁS

**Luz Gabás (Monzón, 1968) ha vertido en *El latido de la tierra* (Planeta, 2019) la historia de una época que se desvanece, y también las biografías de unas personas que se transforman. Es un libro escrito con el corazón, en el que conviven un trepidante pulso narrativo, las emociones humanas más reveladoras y el siempre inapelable transcurso del tiempo.**

**En el libro afirma que *El latido de la tierra* ha sido también un viaje al «pozo» de su propio pasado.**
Comencé a escribir la historia al cumplir cincuenta años, medio siglo de vida. Me preguntaba: ¿cómo percibo el paso del tiempo? ¿Cómo he vivido las transformaciones de las últimas décadas? ¿Cómo me enfrento al futuro? Quería hablar de mi generación en un contexto muy concreto. Acudían a mi mente muchas cuestiones relacionadas con lo vivido: ¿cómo recuperamos nuestro pasado?, ¿nos aferramos demasiado a él?, ¿nos arrepentimos de muchas cosas?, ¿aprendemos de los errores?, ¿realmente sabemos ir ligeros de equipaje en la vida?, ¿reconocemos nuestros prejuicios?, ¿estamos preparados para asumir el paso del tiempo sin excesiva nostalgia?, ¿cómo podemos conservar la juventud de nuestro espíritu? Siento que mi cuerpo envejece, pero mi interior sigue tan activo como cuando tenía veinte años, con mis contradicciones, mis momentos de tensiones emocionales, mis ganas de seguir aprendiendo… Creo que necesitaba escribir esta historia para resetearme y continuar adelante. Como la protagonista, Alira, de alguna manera he luchado para reconstruir mi identidad. Ambas somos herederas de un mundo que desaparece y ambas hemos vivido ya los suficientes años como para analizar la historia más reciente. Para mí, en este sentido es una novela muy positiva.




**EL LATIDO DE LA TIERRA**
Luz Gabás
PLANETA

**En el libro habitan varios pasados, el de los personajes, pero también el de España, el de sus costumbres, sus formas, su calvario político y su vida campesina.**
*El latido de la tierra* nació de varias palabras: pasado, edad, pueblo, tierra, casa, despoblación, miedo, futuro. Quería contar una historia de un mundo que se desmorona y, a la vez, hablar de esperanza. La elección de la mansión Elegía es un guiño a la España vacía como símbolo de un pasado perdido e irrecuperable. Mi generación está formada por los hijos de quienes dejaron los pueblos y llenaron las ciudades. Como la mía, muchas familias conservaron su vinculación con el pueblo de procedencia, manteniendo la casa natal del pueblo. La figura de la casa en el medio rural ha dado sentido a la existencia de millones de personas a lo largo de la historia.

**Y esos pasados conviven con un presente-futuro esperanzador, el de la repoblación de los pueblos abandonados de las zonas rurales.**
Siempre me ha interesado el tema de la despoblación, porque tengo alma de pueblo. Mi vida ha estado ligada desde mi nacimiento a la provincia de Huesca, donde hay 300 aldeas y pueblos deshabitados. Produce vértigo pensar que, no hace tanto, todos esos pueblos y aldeas estuvieron vivos. En sesenta años se han borrado siglos de historia. Espero y deseo que todas las iniciativas para frenar la despoblación den sus frutos. Nada será como antes, pero tampoco tiene por qué serlo. Afortunadamente, ahora la vida en los pueblos no es tan dura como lo fue.

**TERESA SALA**
Periodista

**La entrevista completa:**
**http://bit.ly/luz_gabas**





> “Dena da iragankorra, eta, hondarrak biltzean, noizbaiteko existentzia hori erakusten dugu”

# RUBEN SANCHEZ BAKAIKOA



**HONDARRAK**
Ruben Sanchez Bakaikoa
TXALAPARTA

**Ruben Sanchez Bakaikoak estreinako eleberria argitaratu du, Txalapartaren eskutik: *Hondarrak*. Espainiako kartzelak eta Uxue herria ditu agertoki nagusi, eta 1980-1990eko hamarkadetan eta Gerra Zibilaren ondorenean kokatu ditu eleberriko bi kontakizun nagusiak.**

**Zeren hondarrak aurkituko ditu irakurleak zure liburuan?**
Memoriaren hondarrak, etxearenak, laborari herrienak, iraultzarenak, ametsenak, kafearenak.

**Liburuak hiru atal ditu: Pilar, Julia eta Xabier, *Tupa*. Nor da nor?**
Pilar 1918an Uxuen jaiotako emakume bat da, etxe laborari handi bateko alaba. Haren gaztaroa ezagutuko dugu. Ezkondutakoan, Gasteiza bizitzera joan eta bi urteko alaba, Julia, Uxuen utzi du amatxi-aitatxiekin. Juliak –Pilarren alabak– hamar urte zituelarik idatziriko egunerokoa baten bidez, 1960an Uxuen pasatutako azken uda kontatuko du. Xabier, *Tupa*, Juliaren semea, gazte-gazterik ETAn sartu zen. 27 urte emango ditu espetxean.

**Xabierrek gidatzen du kontakizuna. Kartzelan dagoela, bere familiaren oroitzapen-hondarrak biltzen hasten da, *abueli*ren eta amaren lekukotasunen bitartez. Zer kontatu nahi du zehazki?**
Ez dakit zehazki dakien. Hondar-biltzaile bat da. Dena da iragankorra: pertsonen bizitzak, etxeen bizitzak, ametsak, ilusioak, maitasunak... Dena erortzen da, dena desagertzen. Hondar horiek biltzean, beharbada, noizbaiteko existentzia hori erakutsi besterik ez du nahi.

**Alde horretatik, memoria-ariketa zintzoa da liburua. Zer garrantzi dute memoriak eta iraganeko oroitzapenek?**
Pertsona batengan, erabatekoa. Nor gara gu gure bizitzaz oroitzen ez garenean? Bestalde, izugarria da gure guraso, amatxi-aitatxi eta abarren gainean zer gutxi dakigun. Zenbat orrialde beteko dituzu zure amak bere bizitzaz eman dizkizun hondarrekin? Eta amatxi-aitatxiei buruz zenbat dakizu? Izugarria da existentziak nola desagertzen diren.

**Eta herri batean?**
Historia errepikatzen dela esaten da, beharbada tematzen garelako errelato bakarra izan dadin.

**Bestalde, kartzelaren ilunak agertu dituzu (bakardadea, sakabanaketa, tortura…), baina baita argiak ere (presoen arteko harremanak, umore berezi hori…).**
Espetxea pertsonak bezatu eta suntsitzeko makina bat da. Presoek espetxeari aurre egiteko tresnak dira elkartasuna, umorea, komunikazioa bera...

**Hizkuntza-erregistro eta ahots ugari baliatu dituzu istorioa kontatzeko.**
Preso zein preso ohi askorekin dut harremana, berdin Uxueko familia eta beste uxuetar anitzekin ere, bestela ez nintzateke horretaz idaztera ausartuko. Ume baten egunerokoa irudikatzea gehiago kostatu zait; zorionez, badira umeek idatzitako egunerokoak, baita fikziotik umeen mundua ederki irudikatu duten liburuak ere. Ahotsei buruz, presoen bizimoduan, komunikazioek pisu handia dute. Kalean dauden lagunekiko komunikazioak zelatatuak eta mugatuak dira: bisitak eta bisiten denbora, gutun kopurua, deiak eta deien iraupena. Presoen arteko komunikazioa ere mugatuta dago; areago isolamendu-modulu batean zaudenean. Azkenik, bakardade bolada luzeek zeure buruan dauzkazun ahotsetara zaramatza.

**Gehitu nahi duzu hondar-hitzik?**
Literatura-asmoko liburu bat euskaraz. Hori bera ere hondarra.

**AMAIA APALAUZA**
Itzultzaile-zuzentzailea





FOTOGRAFÍA: JOSÉ LUIS ROIG

*“La literatura no se antepone a la vida”*

# JOSÉ IGNACIO CARNERO



**AMA**
José Ignacio Carnero
CABALLO DE TROYA

***Ama*, una novela con hechuras de memorias, es la ópera prima de José Ignacio Carnero (Portugalete, 1986). Editada por Caballo de Troya, la historia arranca cuando el narrador es informado del agravamiento del estado de salud de su madre. Se propone entonces contar la historia de su familia, una familia humilde, parecida a otras muchas que se crearon junto al humo de las chimeneas de las fábricas. Este testimonio, que huye de la autocompasión, es, entre otras cosas, un ajuste de cuentas emocional.**

**Usted ha querido reivindicar la memoria de las familias humildes porque, dice, no tuvieron tiempo de escribirlas.**
Ni tiempo, ni posibilidades materiales, es decir, no hay una memoria escrita, fotografías, videos... Hay un vacío absoluto. La gente vino del campo, se instaló en los bloques de la periferia, pero apenas se sabe nada de ellos. Es como el Far West. Se dice que hubo unos pioneros, pero nadie sabe nada de ellos. Sólo que estaban allí. Y eso es injusto.

**Esta novela empieza a escribirse cuando el estado de salud de su madre empeora de forma irreversible. ¿Le ayudó a sobrellevar la angustia?**
No. La vida es una cosa y las novelas otra. No creo en la escritura como en un manual de autoayuda. Desgraciadamente, la literatura no se antepone a la vida. No tiene tanta importancia.

**Es usted, el narrador, duro consigo mismo y arrastra la sensación de no haber cuidado a su madre como merecía, de no haber estado a la altura de la situación.**
Me parece que es algo que llevamos a cuesta todos los hijos. Incluso los más abnegados. En algunos aspectos de la vida de una persona, nunca es suficiente.

**También confiesa que se siente usted como intruso en su nivel de vida, más alto que el que tuvieron sus padres.**
Creo que es un síndrome habitual. Uno es criado y educado en unas costumbres y forma de vida, y de pronto se ve arrojado a otra muy diferente. Es algo que tarda en aceptarse.

**¿Cree que se han suprimido las diferencias de clase? En la época en la que su madre trabajaba en las villas de la Margen Derecha estaban muy patentes.**
Creo que se han disimulado esas diferencias. Si bien el progreso ha disminuido la injusticia, también ha ocurrido que la globalización ha aprovechado a la clase alta en mayor medida. Por eso, la ubicación física ya no es tan determinante, y nos parece que las diferencias se reducen. Es falso, porque ahora la clase alta se mueve por el mundo con facilidad, algo que todavía no ha llegado a las clases populares.

**TXANI RODRÍGUEZ**
Periodista

La entrevista completa:
http://bit.ly/j_ignacio_carnero



“

Llega un momento en el que el escritor se evapora. Me interesaba rememorar cómo mi alter ego dejó de escribir, cuando escribir era lo que más anhelaba.

txalaparta.eus



# INDIVIDUAS PELIGROSAS

## MEMORIA DE LA CÁRCEL DE MUJERES DE AMOREBIETA

**"Individuas peligrosas". Así aparecen calificadas en la documentación las reclusas de la prisión para mujeres que existió en Amorebieta entre 1939 y 1947, en el edificio de lo que hoy es El Carmelo Ikastetxea. *Individuas peligrosas* es también el título que Ascensión Badiola ha elegido para el libro que ha publicado sobre esta cárcel, apenas conocida, a pesar de su evidente importancia.**

"La Prisión Central de Mujeres de Amorebieta –explica al respecto la autora–, no tuvo carácter local, ni mucho menos, sino que, junto a la de Saturraran y, en menor medida, la de Durango, fue uno de los llamados 'penales del norte', dentro del circuito carcelario establecido por el franquismo por todo el Estado para castigar a las mujeres del bando derrotado en la Guerra Civil".

**Badiola** ha logrado identificar a 1.239 mujeres que pasaron por Amorebieta. "No es en absoluto la cifra total –advierte–, pero permite que nos hagamos idea de la importancia de aquella prisión".

En realidad, la cifra global de reclusas no es la única laguna que existe en la historia del centro, pues los archivos están desaparecidos. Ello ha obligado a la autora a trabajar a partir de datos hallados en expedientes de otras cárceles y testimonios de las propias presas, especialmente los recogidos por **Tomasa Cuevas**, con quien **Badiola** no duda en reconocer su deuda. Con estos materiales, ha conseguido realizar un esbozo de lo que fue aquella prisión, considerada, por cierto, extremadamente dura. "En todas las prisiones de **Franco** –indica– se vivieron experiencias similares de miseria, hambre, frío y hacinamiento, pero yo he intentado poner nombre y apellidos a esa miseria, ese hambre, ese frío y ese hacinamiento que se padecieron en Amorebieta".




**INDIVIDUAS PELIGROSAS**
Ascensión Badiola
TXERTOA

Tal era la situación, que las reclusas llegaron a hacer una huelga de hambre, ante la que el director amenazó con ametrallarlas. En todo caso, quienes gobernaban con mano de hierro el día a día eran las monjas. "Hubo una especialmente 'mala', la Guadaña, y otra 'buena', que incluso hizo de Celestina entre las reclusas y los soldados que custodiaban el exterior. También hubo un capellán a quien tachan algunas de 'demonio lujurioso'".

**Badiola** presta especial atención a los niños. "Las mujeres tuvieron que verlos morir o sufrir su separación forzosa. Los que murieron lo hicieron sin nombre, pues nunca figuraron en ningún registro. Otros fueron entregados a instituciones benéficas o a familias del Régimen. Rescatar la memoria de estos 'niños perdidos' ha sido una de las razones que me han impulsado a escribir este libro, a pesar de que soy consciente de que en él solo se desvela una pequeña parte de aquella infamia".

**Ascensión Badiola** es doctora en Historia, especialista en la represión franquista en el País Vasco durante la posguerra. En 2011 ya publicó, de la mano de Txertoa, *Cárceles y campos de concentración en Bizkaia*.

**KARMELE URRUTIA**
Periodista



# Hiriburuak, euskararako etorbide

Hiriburuak euskararako eremu arrotz gisa ikusten ditugu, sarritan. Eta euskara ere deserria da, hein baten gutxienez, hiriburuetarako. Gure hizkuntzak presentzia txikia dauka hirietan eta hiriak gutxitan ageri dira jatorrizko euskal testuetan. Eta, hala ere, gure hizkuntza biziberritzeko gakoak dira. Euskal kulturgune eta hizkuntza hauspotzeko tresna nagusiak hiriburuetan daude. Orain euskarara iristeko bide bilakatuko dira. Eta, bide batez, helmuga horren bila abiatzen denak hiri nagusion kontu zahar eta berriak ikasiko ditu euskaratik eta euskaraz. Hemen da Arian euskara metodoak hiriei eskainitako liburuxka sorta.




Hiriburuan barrena goaz tipi-tapa, kale mehar okerretan barrena orain, etorbide artez zabaletatik gero. Auzo berrietan murgildu gara, alderdi zaharreko zokondoak arakatu ostean. Mundu osoan famatu egin diren bazterrak ikusi ditugu bidean, bertokoontzat ere ezezagun diren parajeetara heldu aurretik. Euskara gutxi entzun dugu joan-etorri honetan, baina ernaberritzen ari den zuhaitz zaharraren tankera hartu diogu, ia oharkabean.

Erronka makala, hiri erraldoiak euskararentzat etorbide bilakatzea. Gaitz handiarentzat, erremedio handia, dio esaera zaharrak eta hala egin du Arian euskara ikasteko metodoak: lekuan lekuko idazleak hautatu eta haiei proposatu die nork bere hiriaren gidaliburua egiteko. Eta guztiak hornitu ditu **Asisko Urmeneta** eta **Dom Campistron**en marrazkiekin. Emaitza, bere xumean, paregabea da.

Har dezagun, adibidez, Iruñekoa. **Enrike Diaz de Ultzurrun**ek gidatu gaitu hiri buruzagitik, tipi-tapa. San Ferminetara eta entzierrora eraman gaitu, jakina, baina hamaika kontu gehiagoren berri eman digu. Eta, batez ere, euskaratik begiratu dio Iruñea zaharrari: karrikari dinda esaten ziotela jakin dugu, antzinako irainak entzun ditugu eta 1918ko entzierroetako bat barrutik bizi izan dugu... euskaraz. "Nik ere egin behar dut behin bederen nire lasteraldia zezenen aitzinean!", aldarrikatu zuen **Agustin Irigaraik**. Misio gaitz doblea ezarri zion bere buruari: zezenen aitzinean lasterka egin eta euskaraz kontatu Iruñeko egunkari batean. Baita egin ere!

Bilboko kontuetan **Lutxo Egia**ren eskutik murgildu gara. Lehengo eta oraingo parajeak bisitatuz historia zahar eta berri ugari jakin ditugu: zigarrogileak eta zirgariak, zubiak eta hilerriak, sexu grina pizten zuen estatua eta Unamunoren buruak, hildakoen trena eta Palanka auzo bizia, besteak beste.

Baionatik **Bea Salaberrik** eraman gaitu, harresiak, karrika nabigagarriak, ostatuak, merkatuak eta baionesak bertatik bertara ezagutzera. Donostiaz, berriz, **Nerea Azurmendi** arduratu da: Tabakaleran hasi zaigu paseoan eta, Sokamuturra kalean amaitu arte, jendetzarik gabeko zoko eta kale lasaietatik joan da hontaz eta hartaz hizketan. Eta gu, bere atzetik, hiriaz gozatuz eta ikasiz, begirik kendu gabe.

Gasteizen **Patxi Zubizarretak** egin ditu *cicerone* lanak. Erdi Aroko harresitik Errekaleor auzo biziberriturainoko bidea erakutsi die bisitariei, eta kalerik kale Zeledon, **Lauaxeta**, **Alberto Zerain**, **Ernestina Champourcin** eta beste askorekin gurutzatu dira. Hain dira desberdinak ikusi dituzten lekuak! Egin kontu: katedral zaharra, Salburuako oasia, Kutxi kalea, Zabalgana auzo berria, Armentia...

Horiexek, lehenengo bostak. Laster dira hemen Donibane Garazi (**Nora Arbelbidek** idatzita) eta Maule-Lextarre (**Jean Luis Davant** eta **Allande Socarros**). Orduan osatuko da euskal hirien irakurketa multzoa.

Testuak bilduma honetarako beren-beregi egindako irudiz lagunduta ageri dira liburuotan. Gainera, amaieran, liburuok ulermena lantzeko ariketak dakartzate (hamar orrialde), baita hiztegi laburra ere. Eta audioliburua ere badute, nahi izan ezkero, irakurri ez ezik, liburua entzun ahal izateko.

LA AUTORA REVELACIÓN VASCA
EIDER RODRÍGUEZ,
PREMIO EUSKADI DE LITERATURA




«La realidad no es la forma desvaída en que la recordamos, sino un brillo de belleza y dolor en cada línea de los cuentos de Eider Rodríguez.»

Belén Gopegui

Literatura Random House | Penguin Random House Grupo Editorial

Disponible en ebook

Síguenos en:
www.literaturarandomhouse.com





# De lectura por las capitales

El método de aprendizaje de euskera Arian ha publicado los primeros libros de lectura de la serie que dedicará a las capitales de Euskal Herria. Se trata de los correspondientes a Iruñea, Bilbo, Baiona, Gasteiz y Donostia. Próximamente verán la luz los de Donibane Garazi y Maule.

Los títulos, como acostumbran las lecturas que acompañan a este método, no rebasan las 72 páginas y, además del texto, incluyen ejercicios de comprensión lectora, un pequeño vocabulario con los términos utilizados, y un audiolibro. Vienen ilustrados por los dibujos de **Asisko Urmeneta** y **Dom Campistron**, que completan un recorrido visual de gran atractivo.



Todo ello resulta suficiente para “perdernos” por las calles de nuestras capitales de la mano de grandes conocedores de su realidad actual y pasada: **Enrike Diaz de Ultzurrun** (Iruñea), **Nerea Azurmendi** (Donostia), **Lutxo Egia** (Bilbo), **Bea Salaberri** (Baiona), **Patxi Zubizarreta** (Gasteiz), **Nora Arbelbide** (Donibane Garazi) y **Jean Luis Davant** y **Allande Socarros** (Maule-Lextarre).

Cada cual desde su perspectiva y sus vivencias de la ciudad, estos autores nos conducen por las estrechas calles y cantones de los núcleos históricos, por amplias y rectas avenidas, por escenarios conocidos y por rincones perdidos, por barrios con solera y por bajos fondos con un toque canalla, hasta llegar al extrarradio en el que la urbe pierde su nombre. Pero, sobre todo, miran a la ciudad en euskera y desde el euskera, restablecen la conexión, hoy aún débil, entre nuestro idioma y las grandes ciudades.

De esta entretenida manera, estas guías convertirán las capitales, esos espacios a menudo tan poco propicios para el euskera, en el escenario ideal para mejorar el conocimiento y uso de la lengua y, de paso, reencontrarnos con sus paisajes y paisanajes, los famosos y los olvidados.

**HEKTOR ORTEGA**
Kazetaria



# ANIMALIETATIK JAINKOETARA

Batzuetan kexatzen gara euskarara *best seller* gutxi itzultzen direlako. Ba arrazoi bat gutxiago dago horretarako, nazioarteko mailan azken urteotako liburu salduenetako bat eskura daukagulako euskaldunok, **Yuval Noah Harari** historialari israeldarraren *Sapiens. Gizadiaren historia labur bat*, jatorrian 2011an argitaratu zena, hebreeraz, eta 2014an, ingelesez, arrakasta globala erdiesteko ondoren.

*Best seller* esan dut, baina, bistan denez, ez da fikziozko lan bat, baizik eta saiakera bat, historiako sintesi lan dibulgatiboa. Noizean behin bada ere, ildo horretako liburuak iristen dira salduenen apalategietara: halaxe gertatu zen **Ernst H. Gombrich**en *Breve historia del mundo* bikain harekin, edo **Jared Diamond** biologoaren *Su-armak, germenak eta altzairua* berritzailearekin, euskaraz ere irakurtzeko suertea daukaguna, Klasikoak sailean egindako edizioari esker (2008).

*Sapiens*ek, eta antzeko beste liburuek –1990eko hamarraldITik hazten joan den “Big History” delakoaren alor akademikoaren eraginez, neurri batean–, historiaren epe luzeari erreparatzen diote, eta “betikoa” kontatu behar digutela ematen duen arren, ikuspegi aski interdiziplinarioarekin egiten dute, eta egungo kezken parametroetan –hemen, adibidez, animalien aldeko mugimenduaren oihartzunak argiak dira–.

*Sapiens*en kontakizuna hiru ardatz nagusiren inguruan antolatzen du **Hararik**: duela gutxi gorabehera 70.000 urte abiatutako Iraultza Kognitiboarenean –*Homo sapiens sapiens*a beste gizaki espezieen eta animalien gainetik ezarri eta, ehiztari-biltzaile biziki eraginkorra bihurtuz, ingurumenean eragiteko sekulako ahalmena eman ziona, ditximatze masiboak eragiteraino–, Laborantzaren Iraultzarenean –hots, Iraultza Neolitikoarenean, ikuspegi tradizionalari bizkarra emanez, eta komunitate zientifikoan aspaldi ezarri bezala, ez dena jada aurkezten aurrerapen bat bezala, baizik eta bere tranpak ezkutatzen dituen bilakaera gisa–, eta Iraultza Zientifikoarenean, zeinaren abaroan, eta duela bostehun bat urte hasitako globalizazio prozesuaren testuinguruan, kapitalismoaren eta inperialismoaren indarrak askatu baitziren.



**SAPIENS**
**GIZADIAREN HISTORIA LABUR BAT**
Yuval Noah Harari
ELKAR

Liburuaren amaieran hurrengo jauzi ebolutibo posiblearen berri ematen digu egileak, bioteknologiaren eta adimen artifizialaren garapenetatik erator daitekeena, eta *sapiensa* bera gainditu eta baztertu ahal izango lukeen izaki berri bati –edo batzuei– sorrera eman diezaiokeena. Horixe da, hain zuzen, **Hararik** bere hurrengo lanean, *Homo Deus*en garatuko zuen kontakizuna, euskarara ere ekartzea ondo legokeena.

Abiapuntu materialista gailentzen da obran zehar, baina materialismoak ez du dena azaltzen: gizakia animalia bat gehiago da hasieran, eta bere ahalmenaren bilakaera batzuei esker –fikzio intersubjektibo konpartituak eratzekoa, batik bat– iritsi da mundua menderatzera, eta munduaren beraren orekak ezbaian jartzera. Estilo didaktiko eta eraginkorrean kontatua –ildo kronologiko argia dago, baina narratiboki oso ondo funtzionatzen duten atzerako jauziak eta digresioak txertatuz–, adibide oso plastikoekin, irakurlearengan zalantzak eta hausnarketak sortzeko indar berezia duen liburua da, gure jakituria historikoaren hutsuneak onartzen dituena, umilki.

Ezin guztiarekin bat etorri –diruaren kontzeptuaren sorreraren ingurukoek narratiba liberal betikoari jarraitzen diote, bestelako ekarpenak baztertuta, eta patriarkatuaren erroez gehiago sakon zitekeela uste dut–, baina lana iradokitzailea da oso: historian ohiko interesa dutenak ez ezik, irakurle mota asko erakartzeko boterea erakutsi du, eta euskarara izugarri ondo itzulita dago, **Andoni Sagarna** eta **Xabier Kintana**ren esku trebeak direla medio.

**IBAN ZALDUA**
Idazlea



# ILARGI IRRIBARRETSU BAT

**Aretoa ilundu da. Eszenatokia ortziaren puska errektangular bat da, oinarrizko argitasun batekin. Zain, argi-jokoak, foku koloretsuak abiatu arte. Aldamen batetik edo bietatik, izar kauteloso batzuk irteten hasi dira. Euren artean, ilargi argitsu eta irribarretsu bat iritsi da, berdin deigarri erdian nahiz hegal batean jarri. Leturiaren aurpegia bat-bateko agerpen bat bezala bistaratu zaigu, iragarriz bezala: *Eguzkiaren isla osoarekin nator. Une honetatik aurrera, argitasun alai bat izango da guztia. Bitartean*, "izarrak" euren tresnei heltzen eta haztatzen ari dira, objektu galdu bat berreskuratu balute bezala. Bilaketa eta kokapena luza daitezke, ilargi argitsuaren irribarreak betetzen baitu eszenatokia.**




**TARRAPATAN**
**PANDERO BATEN IBILBIDEA (LIBURUA + DVDA)**
Xabier B. Leturia
**ELKAR**

Horrelaxe gogoratzen dut **Xabier Leturia**k niri (eta uste dut ikusle guztiei) sentiarazten dien inpresioa, eszenatokira irtetean. Ezuste horretara ohituak geunden. Bigarren ezustea (oraingoa) ez da txikiagoa izan niretzat eta (arriskatzen naiz iragartzera) bere miresle guztientzat. *Liburu bat idatzi behar dut.* Batek baino gehiagok, oso hurbilekoek barne, eraso izango zion: *Zuk liburu bat idatzi? Nondik eta zertara?* Aitor dut neu ere pixka bat "izar galdu" antzera geratu nintzela, proposamen hura entzutean: *Begiratuko al huke ni idazten ari naizena, herorrek nahi duan erara zuzenduz eta osatuz?* Erantzunean ez nuen dudarik izan: *Letu! Nola ez diat, ba, hori egingo, haizena izanda?*

Eta orain dator hurrengo ezustea, hirugarrena eta handiena. **Leturia**ren testua berriskustea eta "nahi nuen erara zuzentzea eta osatzea" lan bat baino gehiago, gozamen bat izan da. Gozamena, behin-behineko formari osotasuna ematen ari ginen bitartean. Eta gozamen neurrigabea, bion elkarlanean (berean, batez ere), testuari behin betiko forma ematera heldu ginenean.

Hitzaurre hau egitean, pentsatzen nuen: *Nik jaso nuen inpresioa jasoko ote du irakurleak?* Barka, irakurle, zure inpresioari nik aurrea hartzea, baina erantzun horretan ere ez daukat dudarik. **Xabier Leturia**, pertsona eta artista moduan ezagutu baduzu, liburu honekin zaude ziur gozatuko duzula, gutxienez nik adina. Eta **Xabier Leturia** hain hurretik ezagutu ez baduzu, orduan gozamen handiagoa izango da zuretzat.

Zer dago *Tarrapatan* honetan? Zeren hau guztia, funtsean, metodo bat baita, panderoa jotzen ikasteko. Ba, gogo hori dutenentzat, bi aldetatik izango da interesgarri liburua. Ni ez naiz aditua metodo bat epaitzeko. Beharbada, "Letu-metodoa" probatzeak tentatuko nau, baina zail izango da, daukadan adinean, panderoan aurreratzea, gozamen-iturri bihurtzeraino. Grina hori badutenei aholku on bat emango diet. Lanean hasi aurretik, irakurri liburu osoa. Pandero baten bizimodua eta pasarte bitxiak. Metodoarekin zuzenean hasten bazara, kontakizun osagarriek erabat tiratu eta distraituko zaituzte, eta ez diezu eskakizunei ondo jarraituko. Goza lehenik osoa, eta ekin ondoren lanari, jakinik hor daudela pasadizoak, nahi duzunean, ikasketaren nekea arintzen lagunduko dizutenak. Eta batez ere, ikasteko gogoa bizituko dizutenak.

**XABIER AMURIZA**
Idazlea



elkar fundazioa

# ELKAR HIZKUNTZAK, euskara ikasi eta lantzeko tresnak




**elkar** Fundazioaren misioa euskara eta euskal kultura sustatzea izanik, naturala da hizkuntzaren lanketa bere egitekoen artean izatea. Elkar Argitaletxeak, 40 urte baino gehiagoko ibilbidean, argitalpen xede izan du, besteak beste, euskararen irakaskuntza materiala. Honela, urte horietan guztietan euskara ikasten ari ziren ikasle eta irakasleentzat erreferentziazkoak izan diren hainbat argitalpen gizarteratu ditu: Jalgi Hadi, Jotake, Aise eta Bakarka metodoak, gramatika liburuak...

2008an, euskararen irakaskuntzan maila didaktikoan izandako berrikuntzek, alde batetik, eta, gaur egun euskara ikasten ari diren norbanakoen beharrak eta euskalduntze sektorearenak kontuan izanik, bestetik, euskara ikasteko metodo berri eta berritzailea sortu eta argitaratzeko erabakia hartu zuen Elkarrek. Arian izeneko metodoa, hain zuzen. Europako erreferentzia markoak zehazten duenari jarraiki, A1 mailatik hasi eta C1 mailara bitartekoa da, eta, hortaz, bost mailak biltzen ditu.

